

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Edozein enpresatan ezinbestekoa da funtsezko baliabideak edukitzea. Horrenbestez, *Alkohol Free*-k ere, beste enpresa askok bezala, haren funtsezko elementuak izango ditu, enpresari bere balio-proposamenerako eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea ahalbidetuko diotenak.

Gure enpresaren funtsezko baliabideak hurrengoak izango dira, eta enpresako bazkide bakoitza baliabide zehatz batez arduratuko da, norberaren abileziak kontuan hartuz:



Baliabide fisikoak (Uxue): baliabide materialak behar bezala kudeatzea, izakinak eraginkortasunez kudeatzea, ekoizpen-prozesuak optimizatzea eta eskura dauden baliabideak behar bezala erabiltzea.



Baliabide intelektualak (Maider): mundu digitalean gure produktua diseinatzeko ezinbesteko baliabideak aurrera eramatea.



Giza baliabideak (Karla): langileak egoki hautatzea eta giza baliabideak behar bezala kudeatzea.



Finantza-baliabideak (Zuriñe): finantza-kudeaketa egokia funtsezkoa da enpresaren kaudimenari eusteko eta denboran zehar jarraituko duela bermatzeko.